

UNITATE  
DIDAKTIKOA  
IRAKASLEENTZAKO PROPOSAMENAK

+13 URTE

2026

F A I S A I E N  
I R L A

*Asier Urbietaren film bat*

*Jone Laspiur    Ibrahima Kone    Sambou Diaby*

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**GIZA ESKUBIDEEN  
ZINEMALDIA  
FESTIVAL DE CINE  
Y DERECHOS HUMANOS**



# UNITATE DIDAKTIKOA

## IRAKASLEENTZAKO PROPOSAMENAK

**+13 URTE**

### FILMA IKUSI AURRETIK

- Fitxa tekniko eta artistikoa
- Sinopsia

### FILMA IKUSI ONDOREN

- Ideia nagusia
- Filmaren tonua
- Filma hitz gutxitan
- Pertsonaiak: Nolakoak dira?  
Zer gustatzen zaizu gehien eta gutxien?
- Gidoiari buruz,  
gaiaren arabera hitz egiteko galderak
- Zer tratu ematen zaie kanpotik datozenei

### UNITATE DIDAKTIKO HAU LANTZEKO AHOLKU METODOLOGIKOAK



Elkarrizketa du oinarri proposamen metodologiko honek; azken batean, etika bizirako prestakuntza bat da. Elkarrizketarekin martxan jartzen dira garapen intelektualerako eta pertsonetikiko errespeturako beharrezko prozedura eta jarrerak; horrek bizikidetzan on baterako trebakuntza eskaintzen du.

## FITXA TEKNIKO ETA ARTISTIKOA

Nazioarteko izenburua	<b>Pheasant Island</b>	Jantziak	<b>Saioa Lara</b>
Herraldea	<b>Espainia, Frantzia</b>	Soinu-diseinua	<b>Marianne Roussy</b>
Zuzendaria	<b>Asier Urbietta</b>	Makillajea	<b>Lola López</b>
Ekoizleak	<b>Arcadia Motion Pictures</b>	Ile-apainketa	<b>Itziar Arrieta</b>
	<b>Tentazioa</b>	Soinuen muntaia	<b>Xanti Salvador</b>
	<b>La Fidèle Production</b>	Musika konposatzailea	<b>Rüdiger</b>
	<b>Galatea Films</b>	Muntatzailea	<b>Maialen Sarasua Oliden</b>
Ekoizle elkartuak	<b>Fernando Bernués</b>	Antzezleak	<b>Jone Laspiur</b>
	<b>Mireia Gabilondo</b>		<b>Sambou Diaby</b>
	<b>Jokin Etcheverria</b>		<b>Ibrahima Koné</b>
	<b>Ibon Cormenzana</b>		<b>Aia Kruse</b>
	<b>Ignasi Estapé</b>		<b>Ximun Fuchs</b>
	<b>Sandra Tapia Díaz</b>		<b>Jon Olivares</b>
	<b>Ángel Durández</b>		<b>Rodonny Perriere</b>
Jatorrizko ideia	<b>Asier Urbietta</b>	Formatua	<b>2:35</b>
Ekoizpen-diseinua	<b>Albert Espel</b>	Generoa	<b>Drama, thriller</b>
Gidoia	<b>Asier Urbietta</b>	Iraupena	<b>98 min</b>
Argazki-zuzendaria	<b>Andoni de Carlos</b>	Jatorrizko bertsoia	<b>Euskara, gaztelania, frantsesa</b>
Arte-zuzendaria	<b>Pau Castejón</b>		
	<b>Esti Salinas</b>		

## SINOPSIS

*Faisaien Irla* munduko agintekidetzatxikiena da. Urte erdia Espainiako estatuari dagokio eta beste erdia, Frantziari. Bidasoa ibaiaren erdian dago, bi estatuak banatzen dituen muga naturalean.

Laida eta Sambou, tokiko bikote bat, irlaren aurrean paseatzen ari da. Bat-batean bi pertsona ikusi dituzte igerian, erreka igarotzen, beste aldera iritsi nahian. Egun batzuk beranduago, subiranotasun-trukearen egunean gorpu bat agertu da. Zein arduratuko da gorpuaz?



## IDEIA NAGUSIA

Idea nagusi bati buruz mintzo da *Faisaien Irla*: pertsona guztiek duten helburuaz, alegia, baldintza hobekoetan bizi nahi izateaz. Horrek, askotan, jaio zaren herritik beste batera leku aldatzea ekar dezake.

Atal honetan filmean ageri diren hausnarketak, ideiak, egoerak eta elkarrizketak aurki ditzakezu; ikasgelan elkarrizketa sortzeko balio dezakete. Ez dira denak landu behar: irakasleak aukera ditzake ikasleen artean jakin-min gehien sor dezaketen ideiak.

Filmean ageri diren ideia nagusiak: desplazatuaren errealitatea, migratzaileak, identitatearen ezaugarriak, harrera egitea eta kanporatzea, errotzea, jatorria. Gutaz espero dena.



### Pentsatzeko:

#### Mestizajea, bikotea mestizoa da

- Filmean kasualitatea dela iruditzen zaizu?
- Istorioa desberdina izango litzateke bikote mestizo bat ez balitz?

#### Sambou errege-kabalgatan Baltasar erregea da

—Ez dut beti errege izan nahi. Edo bai.  
Ez dago hain gaizki.

- Nongoak garen, gure jatorria harro erakusten jarraitu nahi dugu? Edo batzuetan astuna egiten zaigu?
- Zer nahi du mendebaldeak migratzaileez eta haien jatorrizko herriez? Lehengaiak.
- Zer nahi dute haurrek Baltasarrengandik? Opariak.



#### Mugako poliziak

Muga zeharkatzeko arazorik ez duen jendeak, Europako herritarrek esaterako, mugako polizia segurtasun gisa ikus dezakete edo beraiekin zerikusi handirik ez duen zerbait bezala.

- Aldiz, zer suposatzen du muga zeharkatu nahi duten migratzaileentzat?

## Sambou eta Laida erreskatearen eszenan

Sambou izoztuta geratzen da erreka bi migratzaileen erreskatean. Ez du egiten beraz jendeak espero duena (espektatibak, gutaz espero dutena, guk besteez espero duguna).

- Zergatik uste duzu geratzen dela izoztuta?

Sambouren izozte horrek baldintzatu egiten du filmaren gainerako gatazka guztia.

Bikotean sortzen den gatazkak tentsio horren barruan haserre egotea eragingo baligu bezala da.

Eta tentsio hori filmaren amaiera aldean askatuko da.

Ibaian, Laidak migratzaileetako bat salbatzea lortu du; bestea, ez.

- Zeren arabera salbatzen da bat eta besteak ez?

Zoriarekin zerikusia du?



## Bikote protagonistaren lanbidea

Sambou eta Laidak buruhandiak eta erraldoiak egiten dituzte; haien lana tradizioarekin lotuta dago, jatorriarekin, identitate ezaugarri batekin, eta bikoteak, filmaren amaieran, bi migratzaile gonbidatuko ditu identitate ezaugarri horiek bizitzera, erraldoiak eramatera, horien barruan dantzatzera. Eta identitate ezaugarri horretan ezkutatuta, Frantzia eta Espainia arteko mugako kontrola engainatuko dute.

## Hemengoak eta kanpokoak. Desberdintze, baliagarria?

Nassim-en herrikideak agertzen dira; eraso eta lapurtu egiten diote, baina agertzen dira laguntzen dioten batzuk ere.

- Berez zara “ona” ala “txarra”?  
Zauden tokiaren arabera edo duzun jatorriaren arabera?
- Edo zuk “barruan” duzunagatik? Zer da ona edo txarra izatea? Zeinek erabaki du sailkapen hori?



## Okerren pasatzen ari diren horien arteko solidaritatea

Nassimi laguntzen dion mutilak, Mamaduk, honako hau esango dio geroago:

—Elkarrekin urrutiago iritsiko gara.

- Gutxi hitz egiten da migratzaileek haien artean duten solidaritateaz?
- Nork hartzen ditu migratzaile gehien? Garapen bidean dauden herrialdeek, ez aberatsek.

## Aitak nola babesten duen Laida

Laidaren aita azaltzen da; babesle-jarrera du alabarekiko. Honako hau esaten dio:

—Pentsatu gabe egin zenuen jauzi ibaira.

## Lidak eta Sambouk erreskateari buruz hitz egiten dute

—Izoztuta geratu zinen; ez zenidan lagundu —Lidak Sambouri.

—Ez duzu ni errudun sentitzea lortuko —Sambouk Laidari.

- Zer gertatzen da norbait dezepzionatzen dugunean? Ez dugunean gutaz espero dutena egiten?



## Gatazka eskalatu egiten da, nazioarteko dimentsioa hartzen du

Ibaian zegoen bigarren migratzailearen gorpua agertu da. Gatazka interesgarria bat azaltzen da: **zein herrialde arduratuko da hildako pertsonaz?**

Eta hori sinbolikoa da, pertsonen artean ere hori gertatzen baita gatazkak iristen direnean.

## Errotzea, komunitate bateko kide izatearen garrantzia

Sambouk bere lagun Perurekin eztabaida izaten du, ez baitu Iñaki deitzerik nahi, bere izenez deitzea nahi du. Berriro ere jatorria, geure gurasoen erroei eustea, jaioterrikoei heltzea. Bata eta bestearen arteko tentsioa.

## Zoria gure bizitzetan

Lidak Nassim aurkitu du, ibaian erreskatatu zuen mutila.

—Ni izan nintekeen hildakoa; edonor hil zitekeen.

## Zergatik laguntzen diegu besteei?

Laida eta Nassim argazkilariaengana joaten dira; hark argazki bat du ibaian hildako Nassimen lagunarena; behar bada nor den ikus dezakete.

Laida denbora guztian ari da Omar, hildako migratzailea, nor den deskubritu nahian eta Nassimi lagundu nahian.

**Nassimengatik egiten du ala bere buruarengatik?**





### Zenbat arriskatzeko prest gaude gure konbikzioei jarraitzeko?

Laida saiatzen da Nassimi muga zeharkatzen laguntzen, furgonetan ezkutatuta. Harrapatu egiten dute, eta pertsonen trafikoa egozten diote. Berriro ere lagunduko dio sardinaren ehorzketaren festan. Eta badirudi ideia hori Sambouren amets bat dela.

Sambou Laidaren bila joaten da polizia-etxera.

Sambou: —Uste duzu pertsona bati laguntzeagatik zerbait aldatuko dela?

Laida: —Pertsona bat gutxi iruditzen zaizu?

Laidaren solidaritatea, bidegabekerien aurrean duen jarrera. Ezin dugu mundua aldatu, baina, behar bada, inguruan ditugun pertsonen zortean lagun dezakegu.



### Laida eta Sambouren arteko gataska

Lidak Sambouri aurpegiratzen dio erreskatean lagundu ez izana. Hark dio epaitua sentitzen dela: nolabait bere burua biktimizatzen du. Lidak onartzen du; haien arteko tentsioa baretzen hasten da.

### Besteari laguntzea, filmaren funtsezko gaia

- **Hori laguntzea da?**  
Solidaritateaz mintzo da, besteari laguntzeaz, bestearen lekuan jartzeaz, enpatizatzeke gai izateaz.
- **Denek lagun dezakegu modu berean?**  
Sambou toki bateraino iristen da eta Laida, beste toki bateraino.  
**Laguntza horrek balio desberdina du?**

Amorrurik gabe ez da mundua aldatzea lortzen. Hori Taniak esaten du, harrera-zentroa kudeatzen duen gizarte-langileak. **Zer irizten diozue?**

## FILMAREN TONUA

Mendebaldeko gizarteetan gaurkotasan handia duen gaia lantzen da *Faisaien Irlan*. Bizitza hobeago baten bila mendebaldera herrialde behartsuetatik etortzen diren pertsona askoren errealitatea.

Batzuetan, errealitatearekin hain lotura zuzena duten gaiak lantzen direnean eta posizionamendurako irizpide etiko bat dagoenean, eror gaitzke arazo konplexu baten azalpena sinplifikatzen duen kontakizun manikeo batean, onen eta txarren arteko banaketa eginez.

**Zure ustez hori gertatzen da *Faisaien Irlan*? Edo ez?**



## FILMA HITZ GUTXITAN

Borobilean eseri eta filma hitz gutxitan defini dezaten eskatuko diegu.

(Hitz-zerrenda laguntzeko: zirrargarria, alaia, tristea, kezkarria, negar egitekoa, adiskidetasunari buruz, adorea, beldurra gainditzea, besteei laguntzea, toki batekoa izatea, beste toki batek harrera egitea, haserrea, amorrua eta.)


**Zer sentimendu eragin dizu filmak?**

## PERTSONAIAK, NOLAKOAK DIRA? ZER GUSTATZEN ZAIZU GEHIEN ETA GUTXIEN?

Pertsonaien azterketa:

*Faisaien Irla* filmean mota askotako pertsonaiak daude. Badira idealistagoak, sinesgogorrek, ausartagoak, solidarioagoak, liderrak, taldekoiagoak, borrokatzaileagoak. Taula hau egin dugu haietaz pentsa dezazun, eta esan diezaguzun zer deritzozun.

Sar dezakezu gustatu zaizun pertsonaiaren bat filmean agertu arren hemen ez dagoena.



	ZER GUSTATZEN ZAIZUN GEHIEN	ZER GUSTATZEN ZAIZUN GUTXIEN	ZER PAPER JOKATZEN DU ISTORIOAN
<b>Sambou</b> <i>Baltasar</i>			
<b>Laida</b> <i>Ibaian erreskatea egiten duen neska</i>			
<b>Nassim</b> <i>Erreskatatutako gaztea</i>			
<b>Mikel</b> <i>Argazkilaria</i>			
<b>Nerea</b> <i>Tabernako neska, Laidaren laguna</i>			
<b>Peru</b> <i>Sambouren laguna</i>			
<b>Tania</b> <i>Harrera-zentroko gizarte-langilea</i>			
<b>Koldo</b> <i>Laidaren aita</i>			
<b>Omar</b> <i>Ibaian hildako migratzailea</i>			



## GIDOIARI BURUZ, GAIAREN ARABERA HITZ EGITEKO GALDERAK

### 1. Zure ustez, filmak zer gai transmititu nahi du edo ditu?

Item hauek lagungarri izan daitezke:

- Herrialdeen artean pertsonak libre mugitzea.
- Zein arduratzen da pertsona zaurgarriez?
- Pobretutako herrialdeak, zergatik daude horrela? Zeinek pobretu ditu?
- Helmuga, hobeto egoteko leku bat bilatzea.
- Zure bidea aldatzen eta aberasten duten pertsonak.

### 2. Zein eszena gustatu zaizue gehien? Eta gutxien?

### 3. Bizi garen herrian dugun bizimoduak beste herri batzuetan sor ditzakeen bidegabekeriak.

Zure ustez, gure munduan bizitzeko eta kontsumitzeko dugun moduak eragiten die planetaren beste txoko batzuetan bizi diren pertsonei? Adibide bat jarri.

### 4. Bestearen lekuan jartzeko gaitasuna.

- Laidak helburu bat du. Zein da? Nora iritsi nahi du?
- Zein da Nassim eta Omarren helburua?
- Zergatik lor dezake Nassimek?
- Garrantzitsua da besteen laguntza izatea? Zergatik?
- Erraza egiten zaizue inguruan dituzuen pertsonei laguntzea?

### 5. Bizitza berri bat izatea, esperantza bat.

- Zure ustez, zein da Nassimen ametsa? Zergatik erabaki du Europara etortzea?
- Bizitza, esperantza berri bat izan dezake? Eta bere herrian geratuko balitz?

### 6. Helmuga, leku hobeto bat bilatzea.

### 7. Zure bidea aldatzen eta aberasten duten pertsonak.

## ZER TRATU EMATEN ZAIE KANPOTIK DATOZENEI

Ba al dakizu zer baldintzatan datorren eta bizi den migratzaile bat hemen?

Zer tramite egin behar ditu?

Zenbat denbora egon daiteke?

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**GIZA ESKUBIDEEN  
ZINEMALDIA**  
**FESTIVAL DE CINE  
Y DERECHOS HUMANOS**  
HUMAN RIGHTS  
FILM FESTIVAL



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Giza Eskubideak  
Derechos Humanos



donostia**kultura**



**ikertze**  
Kultur elkartea - Asociación cultural